

Txillardegia

Josu Tellabide
Etnologoa

Jose Luis Alvarez Enparan tza Txillardegia hil zen hirugarren urteurrenean gaude. Bere izena ez du zue ez leku bat izendatzeko ez ezertarako erabil tzea nahi. Bada, Txillardegiren merituak denek ezagutzen dituzte, zuek ere bai noski. Zer dela eta, orduan, ezetz hori izena bere omenez erabiltzeko? Badirudi ahalmenik eza du zuela ideia politiko desberdinak dituzten pertsonen oroitzatza onartzeko. Zer iruditzen zaizue norbaitek esango balu Vargas Llosak edo Saramagok eta abarrek ez dutela oroimena izateko eskubiderik, edota ezin dutela sari internazionalik jaso, edo ezin direla inon aipatuak izan bere meritu literarioengatik? Zoraturta egon behar da horrelako zerbaite esan edo egiteko. Meritu literario horiek errekonoizteak ez du esan nahi Vargas Llosa eskuindarra ez denik eta Saramago komunista ez zenik...

Gauza bat dira pertsona horien jokiera politikoa eta beste bat da haiek duten artea, trebezia eta merituak jakinduriaren edo artearen edozein alorretan. Gauzak analizatzeko, arrazoi-tzen, ulertzen jakin behar da. Guk aipatutako pertsona horiek (adibide gisa) bere ideologia dela eta kondenatu edo goraipe ditzakegu. Baina bereaien merituak ezin dira ukatu.

Bada *autogorrotza* deitzen dena, gure arteko ezin ikusia: bada gauzak ulertzeko arazoak edo... Txillardegiren etsaiak eskaldunon etsai bertsuak dira, eta zer ari zarete? Donostian beti izan eta diren *egiazko* agintariak ez dira zuetaz ezta gutaz ere fidatzen, eta, agintaritzatza beraiek dutenez, beraiek erabaki dute beti nor goraipeatu behar den gure herrian.

Politikara dedikatzen denak derri-gorreetan gorrotoak etxean utzi behar ditu, eta oposizio politikoa egiten ikasi, zeren bestela, oposizioa baino gehiago sabotajea da egiten dena (gorrotoak itsutasuna dakar, eta jakinduriarik ezak, atrebentzia handia).

Esan, mesedez, zer iruditzen zaizue *Reyes Católicos* eta *Alfonso VIII* pertsonaiek kale izenak izatea (bi adibidetxo jartzeagatik)? Zer meritu dituzte lehendabizikoek? Gerrara, inbasioetara, jendeak, armaz noski, hiltzera bidaltzea; Granadako liburutegiko literaturazko izugarri balio handiko

obrak erretzea han sartu zirenean... Horiek meritu kulturalak edo gizakia-ren aldekoak al dira? Eta bigarrenak, gerretara ere dedikatu zena, gure herria inbaditu eta okupatzen?

Aitzol euskaltzale, idazle, kazetari, bertsolari eta sindikalista erraldoia torturatu eta asesinatu zuten. 1936ko urriaren 17ko *La Voz de España*-k eta *El Diario Vasco*-k agertzen zuten berria: «*Capturado... el energúmeno Aitzol, sacerdote separatista*». 78 urte ondoren oroitu da norbait... eta haren oroimenez kale bat jarri da... badirudi baimeira orain eman dutela Donostiako egiazko agintariak. Ez al zuten orain arte -2014ra arte- oroimenik merezi?

Bada Pio Barojaren kasua, oso adierazgarria. Pio Baroja oso kritikoa izan zen: «*Soy donostiarra pero no siento gran entusiasmo por ello. Para qué adornar la ciudad con bagatelas de bazar que no sirven para nada? La inspiración de los monumentos de San Sebastián ha partido de contratistas, maestros de obras y de concejales*», zioen. Notzbaite jarri behar eta, hil eta hamasei urtera jarri zioten pasealeku bati haren izena.

Fernando Sasiain Donostiak izan duen alkaterik hoberenetakoa izan zen (1931-1936); errepublikanoa bera. Pertsona zintzo eta politikari gailena, Donostiako hainbat proiektu eta obra kultural aurrera ateratakoa, errepre-

sio krudela jasan zuen, ondasun guztiak lapuritu zizkioten eta eroetxe batean ahaztuta hil zen. 35 urte pasa behar izan dira kale batean izena oroitzeko, eta 56 urte San Telmo museoak alde berriari haren izena jartzeko.

Izen asko badira Donostiako oroi-menean: aristokrata, politikari, errege, santu, elizgizon, militar, jauntxo, kontratista, promotore, alkate eta zinegotzi ohiak, eta abar. Baina kultura rekin loturiko pertsonak, gutxi. Hona hemen adibide batzuk:

-Gros auzoa. Jose Grosen semea zen Tomás Grosék eta Juan Miguel Iribas lur-jabeek eraiki zuten auzoa, eta aurrenekoen izena hartu zuen: *negozioa* biena zen, baina. Kultura gizonak? Ez, *negozio gizon* soilak baizik. Eta, noski, zinegotzi eta alkate izanak! Auzoa mendeetan Zurriola deitzen zen... or-dura arte.

-José María Salaverria idazle eta kazetaria. Oso adierazgarriak dira haren lanak: *Vieja España, Los Conquistadores, El Muchacho español, Santa Teresa de Jesús, Las Sombras de Loyola*... 1936-1939 urteetan *La Voz de España*-n idatzi zuen beti.

-Claudio Anton Luzuriagaz zer esan... Lege gizona zen. Oñatin ikasitako; errege espainolak Donostiako diputatu izendatu zuen, eta beti Foruen aurka ibili zen horiek, bere esanetan, industriaren hazkundera oztopatzen zutelako; aduanak Ebrotik Irunera aldatzeko borrokatu eta lortu zuen 1841ean. Ordainetan, ministro egin zuen erregeak.

-José Matia Calvo. Merkataria omen zen. Esklabo beltzen trafikora dedikatzen zen bere *Bella Vascongada* fragata-rik. Hil eta gero zerua irabazteko ahalaginetan zahar behartsuentzat asiloa -gaur Matia Fundazioa dena- egiteko eman omen zuen dirua. Eta haren izena kale nagusi batek darama, gainera.

Agian aipatutako pertsonaia horien merituak Txillardegirenak baino ere handiagoak al dira? Galdetzen dugu... Herri bateko historiarekin adierazgarri garbiak dira kale eta leku edo monumentu izenak. Izen horietan islatzen baitira izan zen eta den Donostiako historia.

Donostiak Kulturaren Hiriburua izan behar omen du 2016. urtean. Urtebete bakarrik gelditzen da ezin ikusi-ak alde batera uzteko. Bestela, gauzak horrela. Pello Kirtzen eleberrera proposatuko du ergelen batek hiriko esparru kultural bati izena emateko! Jakin beharko dugu bereizten... agian ikastaro intentsibo baten beharrean gaude.

Oraindik ez da joan den asteko Paris-ko gertakizunen oihartzuna apaldu. Oraindik *Je suis*-ka adierazten gara. Oraindik ezustean harrapa gaitzake aita santu bakezale baten ukabilkoak (bere amari karrikatura bat egitera auzartzen denari mehatxu). Oraindik ikus dezakegu argi gaitzespen zuri eta errealitate beltzaren arteko alde



JIRA
Angel Erro

kondenatu dutela.

Mila zigor kolpe jasan eta bizirik jarrai dezakeen gizakirik ez dago. Horregatik epe erositan ari da bloglari gaztea zigorrak jasotzen. Aurreneko 50ak dagoeneko hartu ditu. Beste txanda bat hartu behar zuen atzo bertan baina agintariak hurrengo 50 zigor ukaldiak atzeratu ditzkio, sendagileek hala eskatuta, aurrekoen zauriak oraindik ez zaizkio-eta sendatu. Kasu horiek erakusten duenez, Espainiar Gobernuak ez da munduan zigorraren aplikazioan presoekin erakusten duen gizatasun guztiz finaz nabarmen izan den bakarra.

Raif Badawi (*Je suis lui*, jakina, *et toute cette kyrielle*) sendatu bitartean, hausnar dezagun legezko gizatasunaren atzean den ankerkeriaz.

Zurrunbiloa

Zurrunbiloren irudiarekin marraztu dute egungo egoera gaur Donostian *Giza Eskubideak Konponbidea*. *Bakea* lelopean manifestazioa antolatu duten eragileek: Espainiako Gobernuak herri hau zurrunbilora bideratu nahi duela diote. Nolanahi ere, baikor xamar aritu direla iruditu zait, dagoeneko zurrunbilok jende asko bete-betean harrapatu duelakoan. Halaxe irudikatzen



BIRA
Idurre Eskisabel

baititut presoak, haien senideak, auzien zain direnak, eta baita ere biktimak hutsizateari utzi nahi dioten alde guztietako biktimak: indarrak batzen hasi orduko arranparen indarrak berriro hondora daramatzala.

Hain justu, zurrunbiloz hizketan ari garela kontatu diit lagun batek urruneko hondartzak barkarti batean itotzeaz egon zela behin arranpak harrapatuta. Hasieran aurka egin ei zion gogor, baina ezin atera. Txiripaz piztu omen zitzaion argia: bere burua zurrunbilora abandonatu eta hondoa jotzean, indar guztiz haren kontra bermatuta lortu ei zuen azalera ateratzeko adinak bultkada. Alegia, hondoa erabat jotzek salbatu zuela.

Ondorioztatu dugu, gure susmo txarren kontra, beharbada, estrategia hausnartua dela lehen-dakariaren eta, oro har, EAren ikusezintasun ezaxola: geure buru kolektiboa zurrunbilora abandonatu, hondoa egiaz jo eta indarrez azalerratzeko. Ondorioztatu dugu, halaber, naufragoko edozein itxaropen hari singleri eusten diogula.

Izen asko badira Donostiako oroi-menean: aristokrata, politikari, errege, santu, elizgizon, militar, jauntxo, kontratista, promotore, alkate eta zinegotzi ohiak, eta abar. Baina kulturarekin loturiko pertsonak, gutxi